

Bigarrena. – Indarra hartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren bihamunetik aurrera izango du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko ekainaren 24an.

Lehendakariordea,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte
Segurantza sailburua,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

Segunda. – Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de junio de 1997.

El Vicepresidente,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Economía,
Trabajo y Seguridad Social,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Zk-3714

155/1997 DEKRETUA, ekainaren 24koa, Valderejoko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plana aldatzeko dena.

Parke natural baten erabilera publikoaren helburua bisitariekin zerikusia duen guztiaren kudeaketa arautzea da: bisitarien kopurua eta profila ezagutzea, espazioan eta denboran nola banatzen diren, zertan jarduten diren eta horrek zein inpaktu dakartzan. Hori guzta kontutan hartuta egokiago kontrolatu eta antolatu ahal dira bisitariak.

Azterketa eta analisi baten ondoren, alegia, bisitarien kopurua, tipología, Parkean egiten dituzten jarduerak, inpaktu naturalak, sozialak, eta azpiegituraren eta zerbitzuetan sortzen dituztenak, aztertu ondoren, ondorio hauek lortu ditugu:

1.– Bisitarien kopurua handituz joan da Parkea sortu zenetik; 1995ean ia 75.000 bisitari izan zirela jotzen da.

2.– Bisitari gehien izaten diren garaietan —eguraldi oneko udaberri eta udazkeneko igandeetan, Aste Santuan, jaiegunetan eta jaizubietan— azpiegiturak ez dira aski izaten eta gainezka egoten dira.

3.– Jendetza horrek sorturiko kalteak, ordea, konpondu egin litezke kudeaketa-neurri egokiak hartzearotan.

4.– Azpiegitura erabilienak aisialekua eta bideak (batez ere Puron bidea Lalastratik Riberaraino eta San Lorenzo bidea) dira.

5.– Inpaktuak, oro har, zapalketaren ondorioz sortutakoak dira, batik bat aisialeku eta «aldaketa-muga onargarria» gainditzen den zenbait bide-zatitan. Ez da antzeman, ostera, faunari edo ur-kalitateari eragin diezaiokoen inpakturik.

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

Nº-3714

DECRETO 155/1997, de 24 de junio, de modificación del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Valderejo.

El Uso Público en un Espacio Natural Protegido hace referencia a todos aquellos aspectos de gestión que tienen relación con los visitantes. Conocer cuantitativa y cualitativamente al visitante, su distribución espacial y temporal, las actividades que realiza y el impacto que éstas ocasionan, permite predecir una serie de pautas para su control y manejo.

Tras un estudio y análisis de la afluencia de visitantes, tipología de los mismos, actividades que realizan en el Parque, impactos producidos sobre el medio natural, social y en las infraestructuras y servicios existentes, se han obtenido las siguientes conclusiones:

1.– La afluencia de visitantes a Valderejo ha ido aumentando desde el momento de su declaración; siendo de casi 75.000 los visitantes estimados para el año 1995.

2.– Coinciendo con domingos de primavera y otoño de buen tiempo, así como Semana Santa, puentes y festivos, la afluencia ha sido máxima, rebasándose la capacidad de acogida de las infraestructuras.

3.– No se aprecian deterioros, ocasionados por tal afluencia, que no puedan ser corregidos mediante medidas adecuadas de gestión.

4.– Las infraestructuras más frecuentadas son el área recreativa y las sendas (sobre todo la Senda Purón desde Lalastra a Ribera y la Senda San Lorenzo).

5.– Los impactos, en general, se reducen a los derivados del pisoteo, sobre todo en el área recreativa y en las sendas donde existen ciertos puntos en los que se rebasa el «Límite de Cambio Aceptable». No se han detectado impactos que afecten a la fauna o a la calidad de aguas.

Otsailaren 28ko 174/1995 Dekretuaren bidez, Valderejoko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plana onartu zen. Bere azken xedapenetarik lehenengoan ezartzen denez, Valderejoko Parke Naturalaren Kudeaketarako Organo Arduradunak natur inguruaren beharrak aztertu eta Erabilera Publikorako Plana aurkeztuko du, urtebeteko epearen barruan; eta 16/1990 Legearen 29. atalean ezarritako izapideak bete ondoren, plan hori Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planari erantsiko zaio.

Ondorioz, behar diren izapideak bete ondoren, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko ekainaren 24an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Atal bakarra. – Valderejoko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planaren 15. atalaren aldaketa onartzea. Atalaren berridazketa berria dekretu honen eranskin moduan argitaratzen da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko ekainaren 24an.

Lehedakariordea,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

ERANSKINA

VALDEREJOKO PARKE NATURALAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ARAUTZEKO PLANA

«15. atala. – Erabilera publikoa.

A.– Helburuak.

a) Erabilera publikoak ez dezala inolako kalterik sortu natur eta kultur baliabideen kalitatean; ez dezala, azken batean, Parkearen kontserbazioa eragotzi.

b) Urteko bisitarien kopurua egonkortzea eta jende gehien egoten den puntako egun horiek gutxitzea.

c) Orain arteko bisitarien tipologiarri eustea.

d) Lehentasuna ematea Parkeko Lalastrako sarrerari, horrela hobeto kontrolatzeko bisitarien banaketa espaziala eta euren jarduerak.

e) Bisiten errejimena Parkeko azpiegitura eta zerbitzuetara egokitzea, eta publiko zabalagoaregana iritsi interpretazio-jardueren bitarbez.

f) Inpaktuak aldaketa-muga onargarriaren azpitik mantentzea.

Mediante Decreto 174/1995, de 28 de febrero, se aprobó el Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Valderejo. En su Disposición Final Primera se establece que el Órgano Responsable de la Gestión del Parque Natural de Valderejo, evaluadas las necesidades del espacio natural, elaborará un proyecto de Plan de Uso Público que, tramitado conforme a lo fijado en el artículo 29 de la Ley 16/1990, se integrará en el Plan Rector de Uso y Gestión.

En su virtud, cumplidos los trámites preceptivos, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 24 de junio de 1997,

DISPONGO:

Artículo único. – Aprobar la modificación del artículo 15 del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Valderejo, de conformidad con lo que se publica como anexo al presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de junio de 1997.

El Vicepresidente,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

ANEXO

PLAN RECTOR DE USO Y GESTIÓN DEL PARQUE NATURAL DE VALDEREJO

«Artículo 15. – Uso Público.

A.– Objetivos.

a) Impedir que el Uso Público interfiera en la calidad de los recursos naturales y culturales; en definitiva, en la conservación del Parque.

b) Estabilizar la afluencia de visitantes al año, intentando disminuir el número de días pico en que la afluencia es máxima.

c) Mantener la tipología de visitantes observada.

d) Priorizar el acceso al parque por Lalastra, para controlar, de esta forma, la distribución espacial de los visitantes y las actividades que realizan.

e) Adecuar el régimen de visitas a la oferta de infraestructuras y servicios, llegando a un público más amplio en las actividades interpretativas.

f) Mantener por debajo del Límite de Cambio Aceptable los impactos producidos.

g) Araudia betearaztea.

h) Parkearen Eraginpeko Aldea kudeaketarako tresnatzat hartza eta bertako biztanleak estuago txertatzea Parkean.

i) Parkeko egonaldian bisitariaren segurtasuna eta beren gozamena zaintza.

B.- Arauak.

1.- Abeltzaintza, basogintza, ehiza edo nekazaritza aprobetxamenduaren barruan sartzen ez diren belarki, fruitu edo marraskiloen aprobetxamenduan, organismo bizi duna osorik edo zati batez erauzi edo hartu behar denean, honako arau hauetara makurtuko da:

1.1.- Merkataritza aprobetxamendurako, beharrezko da kudeaketarako organo arduradunaren berariazko baimena.

1.2.- Oro har, saltzeko barik, autokontsumorako den aprobetxamenduan, ezin izango da ondokoetatik gorako kopururik bildu:

a.- Kilogramo bat onddo edo perretxiko, pertsona eta egun bakoitzeko.

b.- Bostehun gramo belarki, fruitu edo marraskilo.

1.3.- Produktu horiek ingurua errespetatuaz bilduko dira, aprobetxatzen diren organismoen zati garrantzitsuak ez kaltetzeko ahaleginak eginaz.

1.4.- Kudeaketarako Organo Arduradunak, populazioen egoeraren arabera eta unean uneko eskariaren arabera, beste neurri murriztaileago batzuk ezarri ahal izango ditu.

2.- Kudeaketarako Organo Arduradunak baimena eman ahal izango du Lalastrako errepidetik errepikagailurako tartean bizikletak ibil daitezen. Hala ere, debe-katurik dago erabilera horren edonolako publizitatea egitea.

3.- Ibilgailu motoredunen zirkulazioa Lalastrako aparkalekuun etengo da. Handik aurrera, ibilgailuek behar bezala kreditatutako baimena beharko dute.

4.- Organo Arduradunak kuota bat ezarri ahalko du ibilgailua Lalastrako aparkalekuuan aparkatzeagatik, Patronatuan gai hori aztertu ondoren.

C.- Jarduketak.

1.- Presazko neurriak.

1.1.- Aparkalekua:

1.1.1.- Lalastrako aparkalekua berriz diseinatzea, 100 turismorentzako tokia izan dezan; zuhaitz-landaketa-k hobetzea eta argiztapena jartzea.

1.1.2.- Aparkaleku nagusiaz gainera, 75 turismo-rentzako aparkaleku berri bat jartzea, nagusia betetzen den egunetan erabiltzeko.

1.2.- Parketxea:

1.2.1.- Erakusketaren gehienezko bisitari-kopurua (30-40 lagun) harrera-lekutik kontrolatzea, gainezka egon ez dadin.

g) Velar por el cumplimiento de la normativa.

h) Considerar el Área de Influencia como una herramienta de gestión y conseguir una mayor relación de sus habitantes con el parque.

i) Velar por la seguridad del visitante y su nivel de disfrute en su estancia en el parque.

B.- Normas.

1.- El aprovechamiento de herbáceas, frutos, hongos o caracoles que supongan una extracción total o parcial del organismo vivo, no contemplados en el aprovechamiento ganadero, forestal, cinegético o agrícola, será sometido a las siguientes normas:

1.1.- El aprovechamiento comercial requerirá autorización expresa del Órgano Responsable de la Gestión.

1.2.- Con carácter general, el aprovechamiento no comercial, con fines de autoconsumo, no supondrá la extracción superior a:

a.- Un kilogramo de hongos o setas por persona y día.

b.- Quinientos gramos de herbáceas, frutos o caracoles.

1.3.- La extracción de estos productos deberá efectuarse de manera respetuosa con el entorno, procurando no dañar partes vitales de los organismos objeto de aprovechamiento.

1.4.- El Órgano Responsable de la Gestión, en función del estado de las poblaciones y de la demanda existente, podrá imponer otras medidas más restrictivas.

2.- El Órgano Responsable de la Gestión podrá autorizar el tránsito de bicicletas en el tramo entre la carretera de Lalastra y el repetidor. Queda, no obstante, prohibida la realización de cualquier tipo de publicidad de este uso.

3.- El tránsito de vehículos motorizados sólo se permitirá hasta el aparcamiento de Lalastra. A partir de este punto, los vehículos deberán tener permiso debidamente acreditado.

4.- El Órgano Gestor podrá establecer una cuota para el estacionamiento en el aparcamiento de Lalastra, tras su análisis en el Patronato.

C.- Actuaciones.

1.- Medidas urgentes.

1.1.- Aparcamiento:

1.1.1.- Rediseñar el aparcamiento de Lalastra dotándolo de una capacidad para 100 turismos, mejorar las plantaciones de árboles e instalar iluminación.

1.1.2.- Establecer una nueva zona de aparcamiento para 75 turismos en Lalastra, para los días en que se supere la capacidad del aparcamiento principal.

1.2.- Parketxea:

1.2.1.- Controlar desde recepción que no se rebase la capacidad de carga instantánea de la exposición, correspondiente a 30-40 personas.

1.3.- Aisialekua:

1.3.1.- Picnic-lekuaren beste 14 mahai jartzea, apartekaleku handitzearekin bat etortzeko.

1.3.2.- Picnic-lekuaren hondatuta dauden tokia lehengoratzea, zuloak bete eta hartxintxarrez, harlauzaz edo antzeko estaliz.

1.3.3.- Jolastokian hondatuta dauden tokia lehengoratzea, lurzoru guztia material indartzaileaz estaliz, haurren babes-neurri eta jolastokiei buruzko uztailaren 11ko 175/1983 Dekretuan (1983-08-23ko EHAA) ezarritakoaren arabera.

1.4.- Bideak:

1.4.1.- Riberatik Lalastrara, Portilla bidean zehar, doan bide zaharra, sail bat zeharkatzen duen tokian, errekuperatzea eta seinaleztapen ugariagoz hornitzea.

1.5.- Bisitariaren segurtasuna:

1.5.1.- Bisitarien segurtasuna begiratzea eta jarduerako edo egoera arriskutsuen berri ematea; lehenengo laguntzak emateko oinarrizko materiala edukitzea; pertsonala prestatza larrialditarako; zonaldeko zerbitzu sanitarioak mobilizatza.

2.- Beharreko neurriak.

2.1.- Bisita-errejimena:

2.1.1.- Zaindariek egin beharreko segimendua:

a) Bisitari-kopuruaren gainean:

- Ibilgailuak zenbatza Parkearek hiru sarreretan: egunero Lalastrako aparkaleku, goi-denboraldian Ampoko Hesian, eta hilean bi asteburutan Herranen.

b) Azpiegituren erabileraren gainean:

- Ibilgailu-kopurua aparkaleku, 15:00etan.

- Bisitari-kopurua aisialeku, 15:00etan.

- Bisitari-kopurua, eguneko, Parketxe, eta egonaldiaren iraupena.

2.1.2.- Antolatutako taldeentzat telefono-erreserba-ren sistema mantentzea.

2.2.- Bideak:

2.2.1.- Puron bideko bisitarien kopurua, Lalastratik Riberainoko tartean, gutxitzea; Riberara joateko, horren ordez, Portilla bidea bultzatu.

2.2.2.- Inpaktu gutxiago eduki dezaketen bideak bultzatu; errazago hondatzen direnak, esaterako, La Sierra bidea, Vallegrull bidea, Leron bidea eta Puron bidea (iparraldetik) zaintzeko.

2.2.3.- Aldaketa-muga onargarria gainditzen duten inpaktuak zuzentzea, honako 10 puntuatan alegia:

2.2.3.1.- Puron bidean isurketa dela-eta egiten diren ur-boltsak, 100 bat metroko putzu igaroezina sortzen dutenak; hori saihesteko, bidezidor paraleloak

1.3.- Área recreativa:

1.3.1.- Ampliar el área de pic-nic con 14 mesas, para dar acogida en la misma medida que se ha ampliado el aparcamiento.

1.3.2.- Restaurar las zonas de impacto del área de pic-nic, rellenando los huecos y cubriendolos con gravilla, losas o similar.

1.3.3.- Restaurar las zonas de impacto del área de juegos, cubriendolo con materiales amortiguadores según Decreto 175/1983 del 11 de julio sobre medidas de protección infantil y zonas de recreo (BOPV 23/8/83).

1.4.- Sendas:

1.4.1.- Recuperar el antiguo camino que sube desde Ribera, por la Senda Portilla, hacia Lalastra, en la zona que atraviesa una finca, y dotar a este tramo de señalización más profusa.

1.5.- Seguridad del visitante:

1.5.1.- Velar por la seguridad del visitante, informándole sobre actuaciones o situaciones de riesgo; disponer de un material básico para primeros auxilios; formar al personal para que sepan actuar en caso de emergencia; movilizar los servicios sanitarios de la zona.

2.- Medidas necesarias.

2.1.- Régimen de visitas:

2.1.1.- Seguimiento por el guarderío sobre:

a) Afluencia de visitantes:

- Conteo de vehículos en los tres accesos al parque, de forma diaria en el aparcamiento de Lalastra, en temporada alta en la Barrera del Ampo y dos fines de semana al mes en Herrán.

b) Utilización de infraestructuras:

- N.º de vehículos en el aparcamiento a las 15:00 horas.

- N.º de visitantes en el área recreativa a las 15:00 horas.

- N.º de visitantes en el día y duración de la estancia en el Parketxea.

2.1.2.- Mantener el sistema de reservas telefónicas para grupos organizados.

2.2.- Sendas:

2.2.1.- Disminuir la presión de visitantes en la Senda Purón (desde Lalastra a Ribera) fomentando el uso de la senda Portilla para llegar a Ribera.

2.2.2.- Fomentar el senderismo por las sendas menos vulnerables a los impactos, favoreciendo así la conservación de otras más vulnerables como: Senda La Sierra, Senda Vallegrull, Senda Lerón y Senda Purón (por el norte).

2.2.3.- Corregir los impactos que rebasan los Límites de Cambio Aceptables, en los 10 puntos siguientes:

2.2.3.1.- Intransitabilidad de la Senda Purón por acumulación de aguas de escorrentía y posterior formación de una zona de encharcamiento de unos 100

egiten dira eta, ondorioz, inguruko landaredia hondatu egiten da.

2.2.3.2.- Puron bideak pinudia zeharkatzen duen tokian bidezidor berriak egiten dira, eta horrek lurzoruan landare-estalkia galtzea eta higadura ekartzen ditu.

2.2.3.3.- Ribera sarrerako bidea urez gainetza egoten da, bertako ur-sorburuek eraginda.

2.2.3.4.- Riberako makaldian putzuak egoten dira eta zuhaitzen sustraiak airean gelditzen dira. Hori saihesteko, hainbat bidezidor sortu dira alboetan.

2.2.3.5.- Atakan inpaktu hauek gertatzen dira:

a) Atakaren hasieran, bisitariek, sarri, ez dute erabiltzen bertako langa —ireki eta itxi beharko litzatekeena—, eta ibaiertzetik igarotzen dira, landaredia hondatuz.

b) Osinera jaisteko bidean, aurreneko zatia erabat higatuta dago.

c) Ibaiak meandro bat alboratzen jotzen duen tokian, ilargierdi antzeko higadura dago.

d) Oro har, lurzoruan han hemenkako higadura dago (tobak eta trabertinoak); bertatik isurketa-urak pasatzean, bidean zehar kurritu eta higadura areagotu egiten da.

2.2.3.6.- Atakaren bukaera aldean eta Parkearen mugaino bidezidor berriak egin dituzte bisitariek, ibairaino hurbildu eta paisajea ikusteko. Zati batean, isurketa-urak goitik behera abiatu eta bidearen erdia-dea V eran higatu du.

2.2.3.7.- Lalastrako errotaren inguruan bidezidor berriak sortu dira ondoko zelaietara joan ahal izateko.

2.2.3.8.- Villamardoneseko irteeran, San Lorenzo bidean, bidezidor berri bat sortu da.

2.2.3.9.- Abereek, zoru buztintsua duen bazter batean, zapalketaren eraginez 500 bat metroko inguru istiltsua sortu dute. Hori saihesteko, bisitariek bidezidor berriak egin dituzte bidetik kanpo.

2.2.3.10.- Santa Ana bidean, atakara jaisteko azken zatian, bidezidor berriak egin dira, lasterbide moduan erabiltzeko.

2.3.- Inpaktuak:

2.3.1.- Lehentasuna ematea haraneko gizakien eta abereen kontsumorako ur-hornidurari.

2.3.2.- Zuhaitzak eta zuhaiskak egurretarako moztu ez daitezela kontrolatzea. Egurra edo egur-ikatza saltze-ko zerbitzua sortzea, barbakoetan erabil dadin.

2.3.3.- Azterketa bat egitea, bisitariek fauna-populazioengan sortarazten duten eraginari buruz.

2.4.- Dibulgazioa:

metros de longitud, que provoca la formación de nuevas sendas paralelas, que afectan a la vegetación próxima a la senda.

2.2.3.2.- Apertura de nuevas sendas, con pérdida de cubierta vegetal y erosión del suelo en el trayecto de la Senda Purón que atraviesa el pinar.

2.2.3.3.- Encharcamiento de la senda por surgencias de agua, en la entrada del pueblo de Ribera.

2.2.3.4.- Encharcamiento y afloramiento de raíces de árboles en la chopera de Ribera, por surgencias de agua, lo que ha ocasionado la formación de numerosas sendas para salvar dicho obstáculo.

2.2.3.5.- Este punto corresponde al desfiladero en el que se dan varios impactos:

a) A la entrada del desfiladero, el usuario a menudo en lugar de abrir y cerrar el portillo existente, lo salva destrozando la vegetación de ribera.

b) La primera parte de la bajada a la poza está altamente erosionada.

c) Erosión en media luna, en la zona en la que el río tiende a eliminar un meandro.

d) Erosión general del suelo (tobas y travertinos) en los que se acumulan aguas de escorrentía y se dirigen por la propia senda erosionándola aún más.

2.2.3.6.- A la salida del desfiladero y hasta el límite del Parque existen zonas en las que los usuarios han abierto sendas para acercarse al río para completar el paisaje. Existe un tramo en el que bajan aguas de escorrentía por el centro de la Senda erosionándola en sección con forma de V.

2.2.3.7.- En los alrededores del molino de Lalastra, formación de nuevas sendas para acceder a la campas próximas.

2.2.3.8.- Formación de nueva senda en Senda San Lorenzo, a la salida de Villamardones.

2.2.3.9.- Zona de encharcamiento de unos 500 metros de longitud ocasionada por el pisoteo del ganado en una zona arcillosa. Para evitar este tramo los usuarios han invadido los márgenes del camino formando nuevas sendas.

2.2.3.10.- En la Senda Santa Ana, y en el último tramo de bajada hacia el desfiladero se da la apertura de nuevos tramos de senda utilizados como atajos.

2.3.- Impactos:

2.3.1.- Priorizar el abastecimiento de agua para consumo humano y del ganado de los habitantes del valle.

2.3.2.- Controlar que no se poden árboles y arbustos para leña y crear un servicio de venta de leña o carbón vegetal para uso en las barbacoas.

2.3.3.- Realizar un estudio sobre las interferencias de los visitantes con las poblaciones de fauna.

2.4.- Divulgación:

2.4.1.- Informazioa emango da, bai harrera-lekuau bai Parke Naturalari buruzko foiletoetan, Parkea babes-teko arauen beharraz eta zergatiaz.

3.- Proposamen komenigarriak.

3.1.- Bisita-errejimena.

3.1.1.- Valderejo Euskal Autonomi Elkartetik kanpo sustatzea, Euskal Herriari buruzko turismo-kanpainen edo bertako naturgune babestuei buruzkoetan.

3.1.2.- Ampoko Hesian informazioa ematea Lalastako sarbideari buruz.

3.2.- Parkeko sarrera:

3.2.1.- Parkeari buruzko seinale bi jartza errepi-deetan: bata Madril-Irun autobian, Langraitz parean; bestea Bilbao-Zaragoza A-68 autobidean, Komunioiko irteeran.

3.3.- Bideak:

3.3.1.- Villamardones eta Ribera herrietako sarrerak seinaleztatzea, eraikinak erortzeko dagoen arriskuaz ohartuz.

3.4.- Parketxea:

3.4.1.- Informazio-foileto bat egitea.

3.4.2.- Ordutegia bisitari-kopuruaren arabera egokitzea.

3.5.- Zerbitzu berriak.

3.5.1.- Jarduerak eskaintza haranaren behealdean, Lalastra inguruan, bisitariak bertan atxikitzeko eta nonahi sakabana ez daitezen.

3.5.2.- Landa-ibilbidea estazio etnografikoetan zehar, herri batetik bestera joanez; horren gaineko interpretazio-foileto bat diseinatzea.

3.5.3.- Gidatutako bisitak antolatzea, hilean behin egiteko.

3.5.4.- Haraneko kultur eta etnografi ondareari buruzko interpretazio-erakusketa bat sortzea.

3.5.5.- Elbarrientzako ibilbide bat diseinatzea eta egitea.

3.6.- Dibulgazia:

3.6.1.- Gehien saltzen diren dibulgazio-materialak berriro argitaratzea eta eguneratzea.

3.6.2.- Parkearen mapa topografikoa edukiko duen foiletoa diseinatzea eta egitea.

3.6.3.- Foiletoan salmenta automatikoa eskainikoa duen sistema jartzea Riberan.

3.7.- Beste zerbitzu batzuk:

3.7.1.- Parkearen Eraginpeko Aldean kanpin, aterpetxe eta/edo nekazalturismoko etxeen modukoak bultzatzea.

4.- Baldintzapeko proposamenak.

4.1.- Parkeko sarrerak:

4.1.1.- Ampoko Hesian sarreraren berri ez ematea.

2.4.1.- Tanto en recepción como en los folletos que editen sobre el Parque Natural se informará sobre la necesidad y razones de introducir una determinada normativa para la protección del Parque.

3.- Propuestas Convenientes.

3.1.- Régimen de visitas:

3.1.1.- Promocionar Valderejo fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco, inserto en campañas turísticas del País Vasco o de sus Espacios Naturales Protegidos.

3.1.2.- Ofrecer información en la Barrera del Ampo, sobre el acceso por Lalastra.

3.2.- Acceso al Parque:

3.2.1.- Promover la colocación de dos señales indicativas del Parque en la autovía Madrid-Irún a la altura de Nanclares y otra en la autopista A-68 Bilbao-Zaragoza, en la salida de Comunión.

3.3.- Sendas:

3.3.1.- Señalar las entradas de los pueblos de Villamardones y Ribera, alertando sobre el peligro de posibles derrumbamientos.

3.4.- Parketxea:

3.4.1.- Elaborar un folleto informativo.

3.4.2.- Adecuar su horario de apertura a las horas de afluencia de los visitantes.

3.5.- Nuevos servicios:

3.5.1.- Crear una oferta de actividades por el fondo del valle, como medida disuasoria, para retener a un mayor número de visitantes en el entorno de Lalastra.

3.5.2.- Itinerario rural por las distintas estaciones etnográficas, uniendo varios pueblos y diseño de un folleto interpretativo.

3.5.3.- Puesta en marcha de un servicio de visita guiada, con una frecuencia de una vez al mes.

3.5.4.- Creación de una exposición interpretativa sobre el patrimonio cultural etnográfico del valle.

3.5.5.- Diseño y realización de un itinerario para minusválidos.

3.6.- Divulgación:

3.6.1.- Reeditar y actualizar los materiales divulgativos con éxito de venta.

3.6.2.- Diseñar y elaborar un folleto que incluya un mapa topográfico del parque.

3.6.3.- Establecer un sistema de venta de folletos mediante un mecanismo automático en Ribera.

3.7.- Otros servicios:

3.7.1.- Fomentar la creación de alojamientos de tipo camping, albergue y/o casas de agroturismo en el área de influencia del parque.

4.- Propuestas Condicionadas.-

4.1.- Accesos al Parque:

4.1.1.- Evitar dar publicidad a la entrada por la Barrera del Ampo.

4.2.- Aparkalekua:

4.2.1.- Erreserbako aparkalekua egokitza, nagusia gainezka egoten den puntako egun-kopurua nabarmen gehitzen bada.

4.3. - Azpiegiturak:

4.3.1.- Riberako egitura arkitektoniko tradizionala mantentzea, kanpokoa baztertuz.

4.4.- Eraginpeko Aldea:

4.4.1.- Eraginpeko Aldeko biztanleak Parkearen kudeaketan txertatzea, bertako jardueren destinatziale lehentasunezkoak izango direlarik.

D.- Beste proposamen batzuk.

Behin-behineko proposamen experimentalak sartzen dira hemen, proposamen murriztaileagoak eman baino lehenago.

1.- Bisita-errejimena:

1.1.- Disuasio-neurriak jartza, badezpada, bisitarien emana kontrolatzeko. Parkearen Eraginpeko Aldeko hedabideak eta baliabide turistikoak erabil daitezke bisitari-sektore potentzial bat, nolabait, bertaratu ez dadin, batez ere jendetza handia espero diren puntako egunetan.

1.2.- Hedabideak erabiltzea, Valderejok neguan eta udan —bisitari gutxiko sasoia— dituen natur eta kultur baloreak ezagutarazteko.

1.3.- Behin-behineko neurri hauek huts egiten badute, neurri murriztaileak ezarriko dira bisitarien kopurua kontrolatzeko; horrekin batera, beti ere, herri-tarrei neurri horien beharra eta zergatia ongi azalduko zaie.

1.4.- Luze gabe parke natural berriak deklaratuko dira eta beroietan zerbitzu eta azpiegiturak sortuko dira. Hori, berez, kontutan hartu behar den beste disuasio-neurri bat da.»

4.2.- Aparcamiento:

4.2.1.- Adecuar la zona de aparcamiento de reserva en caso de que sea significativo el número de días pico en que se rebase la capacidad del principal.

4.3.- Infraestructuras:

4.3.1.- Conservar la estructura arquitectónica tradicional de Ribera, evitando la construcción de infraestructuras alóctonas.

4.4.- Área de influencia:

4.4.1.- Implicar a los habitantes del área de influencia en la gestión del parque, considerándoles como destinatarios preferentes para las actividades que se desarrollen.

D.- Otras propuestas.-

Se incluyen aquí otras propuestas de carácter experimental, utilizándose estas medidas preferentemente, antes de establecer otras más restrictivas.

1.- Régimen de visitas:

1.1.- Poner en marcha medidas de precaución o disuasorias para controlar la afluencia de visitantes. Utilizando los medios de comunicación y/o los recursos turísticos del área de influencia para disuadir a un sector potencial de visitantes, sobre todo en fechas en las que se ha observado los máximos picos de afluencia.

1.2.- Utilizar los medios de comunicación para dar a conocer los valores naturales y culturales de Valderejo en invierno y en verano; épocas de baja afluencia.

1.3.- En el caso de que estas medidas de precaución no dieran los resultados esperados, se aplicarían medidas restrictivas en la afluencia de visitantes. En este caso, estas medidas irán siempre acompañadas de información al público sobre la necesidad de establecerlas.

1.4.- La próxima declaración de nuevos Parques Naturales y la puesta en funcionamiento de nuevos servicios e infraestructuras en los mismos, constituye otra medida disuasoria a tener en cuenta. «